



BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)



bat
Soziolinguistika
aldizkaria

DOSSIERRA

77. zenb. / 2010 (4)

EGIA DESEROSOA Hizkuntza-politikari buruz inoiz kontatu ez dizutena

Igor Astibia Teiletxea

Kontseiluko ildo politiko-instituzionaleko kidea

Helbide elektronikoa: igor@kontseilua.org

1. HIZKUNTZA-POLITIKA OROKORREI BURUZ

"Guda, okupazioa, kolonizazioa, deskolonizazioa eta nazioaren askapen-prozesuekin batera askotan irabazlearen hizkuntzaren nagusitasuna eta hegemonia hedatzea helburu duen hizkuntza-politika garatzen da (adierazitakoa edo adierazi gabekoa), galtzailearen hizkuntz(ar)en kaltetan betiere... Europako zenbait hizkuntza munduko bazter guztietara hedatu izana ezin da azaldu azken bostehun urte hauetan gertatutako kolonizazio prozesuak aintzat hartu gabe. Ingelesa, espainola eta frantsesa —eta neurri txikiagoan portugesa, alemana, nederlandera, italiarra eta daniarra— kontinente guztietara iritsi ziren, ez beraiei ezaguturik bereziki esker, indarraren hizkuntzari esker baizik. Espainiak ere badu antzeko esperientziarik frankismoaren garaian, zeinaren helburu politikoen artean, katalana, galegoa eta euskara diskriminatu eta jazartzea zegoen.

Historiaren eta hizkuntzen garapena kontraesankorra izaten da eta demokratizazio-, deskolonizazio- eta nazioaren askapen-prozesu askotan zanpatua izan den hizkuntzak eremuak "birkonkistatzeko" hizkuntza-politikak jartzen dira abian.

Hemming Bergholtz eta Sven Tarp hizkuntzalari daniarren hitz horietan historian zehar garatutako hizkuntza-politika desberdinen adibide batzuk aipatzen dira. Frankismoak euskararen aurka garatutako hizkuntza-politika ere aipatzen da, nahiz eta Euskal Herrian jakin badakigun euskara gutxitzeko politikak ez direla garai horretara mugatu, ez eta Espainiako Estatuaren mendeko herrialdeetara ere. Frantziako Estatuan

ere urrundik dator, frantsesari ematen zaion zuzenbideko hizkuntza bakarraren dohaina. 1539an jada, François I.ak sinatu Villers-Cotteretseko ordenantzak inposatu zuen frantsesaren erabiltzea justiziako egitateetan. Geroztik, etengabeak izan dira frantsesaren alde eta tokiko hizkuntzen aurka bideratu diren politikak: frantses iraultzatik XX. mendera, Grégoire abadearen azterlanetik Toubon legera, berezko hizkuntzen desagerrarazteko politikak anitzak izan dira, familia-transmisioa eteterainokoak.

Dena dela, aditu horiek ongi dioten bezala, historian zehar hizkuntza gutxituak berreskuratzeko hizkuntza-politikak baino gehiago, hizkuntza batzuk beste batzuen gainetik inposatzeko politikak garatu dira. Egun, baina, hizkuntza-politikaz ari garenean badirudi hizkuntza gutxituak berreskuratzeko politikak direla izendapen hori merezi duten baka-rrak. Are gehiago, hainbatek bestelako politikak inoiz garatu ez balira bezala jarduten du edo okerrago, hizkuntza gutxiagotuak berreskuratzeko politikak inposizioan oinarritzen direla argudiatzen da, aurrez garatutako benetako inposizioa ahaztuz. Berdin dio historialariek edota hizkuntzalariek jazarpen-politika horien milaka froga dokumentatu badituzte: hizkuntza gutxituen alde egiten dena inposizioa da, bestea, gertaera naturala edo berezkoa.

Egun, Euskal Herrian ere, hizkuntza-politika kontzeptua gutxiagotutako hizkuntzaren aldeko politikak izendatzeko erabiltzen da. Euskarak egun pairatzen duen egoera diglosikoa, ordea, hizkuntza-politika erasokorren ondorioa izan da.

Are gehiago, gaur egun gutxitutako hizkuntzak berreskuratzeko politikekin batera, oraindik ere hizkuntza nagusien aldeko hizkuntza-politikek indarrean jarraitzen dute. Hor dago, esaterako, gurean indarrean den corpus juridiko osoa, Espainiako Estatuan gaztelaniari eta Frantziakoan frantsesari nagusitasun juridiko erabatekoa aitortzen diena. Izan ere, egun hizkuntza batzuek duten hegemonia lortzeko mendeetan zehar Estatuak indarra eta bortxa erabili bazituzten, egun nahikoa zaie bestelako bitartekoak erabiltzea lortutako hegemonia hori mantentzeko.

Euskal Herrian azken hamarkada hauetan erdare nagusitasun juridiko osoa aitortzen dieten politikekin batera, euskararen normalizaziorako hizkuntza-politika desberdinak garatu dira, baina euskararen egungo egoera diglosikoa ikusita, politika horien eraginkortasuna zalantzan jartzeko modukoa da. Izan ere, gaur egun, hiru hamarkadatan zehar euskararen aldeko hizkuntza-politika desberdinak garatu ondoren, euskarak oraindik ez ditu funtzio komunikatibo guztiak betetzen, bere erabilera mugatua da gizarte-alor askotan, hala nola ingurune geografiko batzuetan, eta herritarren gehiengoak, oraindik ez daki euskaraz.

Euskararen normalizazioa helburu duten hizkuntza-politikek egoera diglosiko hori gainditzeko neurri estrategikoak hartu beharko lituzkete. Lehenik eta behin, ezinbestekoa da, herritarrek euskara ikastea, baina

Dena dela, aditu horiek ongi dioten bezala, historian zehar hizkuntza gutxituak berreskuratzeko hizkuntza-politikak baino gehiago, hizkuntza batzuk beste batzuen gainetik inposatzeko politikak garatu dira. Are gehiago, hainbatek bestelako politikak inoiz garatu ez balira bezala jarduten du edo okerrago, hizkuntza gutxiagotuak berreskuratzeko politikak inposizioan oinarritzen direla argudiatzen da, aurrez garatutako benetako inposizioa ahaztuz.

Izan ere, gaur egun, hiru hamarkadatan zehar euskararen aldeko hizkuntza-politika desberdinak garatu ondoren, euskarak oraindik ez ditu funtzio komunikatibo guztiak betetzen, bere erabilera mugatua da gizarte-alor askotan.

parean ezinbestekoa da ere euskara erabili ahal izateko gizarte-alor edo eremuak euskalduntzea, eremu publikoak noski, baina bai eta sektore pribatuan ere. Hiru eremu horietan pauso atzeraezinak eman behar dira gutxitutako hizkuntza berreskuratzeko prozesuetan. Herritarrek hizkuntza ikastea ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa, hizkuntza erabiltzeko aukerak eta espazioak eskaini behar zaizkie herritarrei. Euskaraz ari ahal izateko aukera pertsonal eta sozial horiek biderkatzen ez diren bitartean, ezin da esan euskaldunek euskara gutxi erabiltzen dutenik. Gaur egun, zientifikoki frogaturik dago euskaldunak euskaraz aritzeko aukera duten guztietan euskaraz aritzen direla. Horrelaxe aitortzen da azken inkesta soziolinguistikoa bertan, esate baterako.

Zoritxarrez, euskararen normalizazioaren alde lehen hizkuntza-politikak garatzen hasi direnetik hona, hau da, hiru hamarkadetan zehar, ez dira hiru eremu horietan beharrezkoak diren politikak garatu.

a) Hasteko ez da herritarrak euskalduntzeko politika eraginkor eta orokorrik garatu. Helburu hori hein handi batean hezkuntza-sistemaren esku utzi da eta ez da helduak euskalduntzeko ahalegin nahikorik egin. Dena dela, oraindik orain, hezkuntza-sistema bera ere ikasle guztiak euskalduntzetik urrun dago.

b) Gizarte-alor edo eremuak euskalduntzeari dagokionez, sektore pribatua euskalduntzeko neurriak, kasurik onenean, diru-laguntzak eskaintzera mugatu dira eta orain arte abian jarri diren arau edo plangintzak oso urriak dira.

c) Eremu publikoan eman dira pauso gehien, baina oraindik ere, badira inolako arau eta plangintzarik gabeko zerbitzu publikoak eta kasu batzuetan atzerapausoak ere eman dira. Dena dela, arauak eta plangintzak onartuak dituzten eremuetan lortutako emaitzak oso mugatuak izaten ari dira.

Gutxitutako hizkuntzak berreskuratzeko normalizazio-prozesuak oso dinamika konplexuak izaten dira. Gizarte batean, harreman-sistema sare oso batean, gutxitutako hizkuntzak bere tokia izan dezan, elkarrekin harremanean dauden hainbat elementu eta faktore hartu behar dira kontuan. Gurean ere, euskal jendartea euskalduntzea helburu duen hizkuntza-politika orok ikuspegi holistikoa izan behar du. Gure gizarte-sisteman harremanean dauden elementu guztiak hartu behar ditu kontuan. Ez da eraginkorra hizkuntza-normalizaziorako ekimen eta dinamika isolatuak abian jartzea. Gizartea ez da isolatutako eremuz osatzen eta politika guztiek, eta hizkuntza-politikek bereziki, berezitasun hori kontuan izan behar dute beti.

Are gehiago, ikuspegi holistiko horrek hizkuntzarekin harreman zuzenean dauden gaiak ez ezik, gainerako eremu guztiak ere hartu behar ditu kontuan. Izan ere, hizkuntza-politika ez da soilik hizkuntza berres-

kuratzeko espresuki garatzen den politika. Etxebizitza-politika edota garraio-politikan ere hizkuntza-politika egiten da. Adibidez, herri txiki euskaldun batean egungo etxebizitza-parkea bikoizten bada eta bertan biziko direnak euskaldunak izateko inolako neurririk hartzen ez bada, hori ere hizkuntza-politika da, herri horretako egoera soziolinguistikoa hankaz gora jar dezakeen politika bat garatzen ari delako. Azken finean, politika publiko guztiek ondorio linguistikoak dituzte eta ondorio horiek berreskuratu nahi den hizkuntzaren alde erabil daitezke. Gurean gainerako politika horiek garatzerakoan ez da hizkuntzaren irizpidea kontuan hartu eta, ondorioz, ez dira politika sektorial horiek euskararen normalizaziorako erabili.

Euskal Herrian garatu diren hizkuntza-politikak, kasurik onenean, hezkuntza edota Administrazio publikoa euskalduntzera mugatu direla esan daiteke eta kasu horietan ere hutsune nabariekin. Lan-mundua edo alor sozioekonomikoa deitutakoa euskalduntzeko ez da ekimen esanguratsurik garatu eta ondorioz, pertsonen egunerokotasunean garrantzi erabakigarria duen eremu zabala eta konplexua prozesutik at utzi da, erabaki horrek berak prozesu osoa goitik behera baldintzatzen duela jakin arren. Normalizazio-prozesuan sektoreen arteko desoreka izugarria izan da bai, baina ez soilik sektoriala. Euskal Herrian garatu diren hizkuntza-politikek eragindako desoreka geografikoa eta funtzionala ere lazgarriak izan dira euskararen normalizazio-prozesurako.

Ikusiko dugun bezala, egin dena baino, gehiago egin zitekeen, nahiz eta arrazoi edo interes desberdinengatik ez den egin. Bestalde, eman diren pausoak eman direnak baino azkarrago eman zitezkeen, horretan ere, bestelako helburu eta interesak tarteko. Garatutako politiken ezaugarri nagusia desoreka izan da (geografikoa, funtzionala, sektoriala...) eta ez da ikuspegi orokorreko hizkuntza-politika eraginkorra garatu.

Administrazioen gabezia horien aurrean, euskalgintza eta euskaltzaleak izan dira urte hauetan guztietan normalizazio-prozesuaren eragile nagusiak. Euskalgintza eta euskaltzaleak izan ziren euskarazko irakaskuntza abian jarri zutenak, horiek izan ziren helduen euskalduntze-prozesua abian jarri zutenak eta horiek beroiek izan dira ere sektore pribatua euskalduntzeari ekin ziotenak. Udal batzuek ere lehen pauso horiek lagundu izan dituzte baina Administrazio orokorrak beti atzetik ibili dira euskararen normalizazioari dagokionean. Alor publikoa izan da Administrazio orokorren lan-eremu nagusia eta kasu honetan ere euskalgintzak paper garrantzitsua bete du Administrazioaren politika aztertu eta hobetzeko eragiten.

Euskal Herriak pairatzen duen zatiketa administratiboa dela eta, gurean ez da euskara berreskuratu eta normalizatzeko hizkuntza-politika orokor eta bakarrik garatu. Administrazio bakoitzak zeinek bere hizkuntza-politika landu du, eta alor bakoitzean irizpide eta interes desberdinen arabera eman ditu pausoak. Alor batzuetan gehiago egin da beste

Azken finean, politika publiko guztiek ondorio linguistikoak dituzte eta ondorio horiek berreskuratu nahi den hizkuntzaren alde erabil daitezke.

Euskal Herrian garatu diren hizkuntza-politikak, kasurik onenean, hezkuntza edota Administrazio publikoa euskalduntzera mugatu direla esan daiteke eta kasu horietan ere hutsune nabariekin.

Izan ere, hizkuntza gutxituak berreskuratzeko pausorik ez emateak praktikan hizkuntza hori are gehiago gutxituko dela suposatzen du, eta ondorioz, ezer ez egitea ere hizkuntza-politika da.

*Funtsean, gutxitutako
hizkuntza ez dakiten
norbanakoek ikasi egin
behar dute (belaunaldi
berriek zein zaharrek),
baina horrekin batera,
herritarrei hizkuntza hori
erabili ahal izateko
aukerak, espazioak
bermatu behar zaizkie.*

*Bestalde, bi helburu
nagusi horiek lortzeko
hiru bitarteko nagusi
erabili ohi dira: arauak,
normalizazio-plangintzak
eta baliabideak.*

*Honela, 1982ko
Euskararen Legeak ez
zuen euskara ezagutu
beharreko hizkuntza
bezala definitu.*

batzuetan baino, eta beste batzuetan, ez da batere aurrerapausorik eman. Horrek baina, ez du esan nahi alor horietan hizkuntza-politikarik garatu ez denik. Izan ere, hizkuntza gutxituak berreskuratzeko pausorik ez emateak praktikan hizkuntza hori are gehiago gutxituko dela suposatzen du, eta ondorioz, **ezer ez egitea ere hizkuntza-politika da**. Garrantzitsua da oso hizkuntza-politikez ari garenean ideia hori beti gogoan izatea.

Kontseiluak egindako azterketaren helburu nagusia hizkuntza-politika horien gabezia garrantzitsuenak ezagutzera ematea da.

2. HIZKUNTZA-POLITIKAREN ZUTABE NAGUSIAK

Gutxitutako edozein hizkuntza berreskuratu eta normalizatzeko ezinbestekoa izaten da ezagunak diren neurri batzuk eraginkortasunez abian jartzea. Funtsean, gutxitutako hizkuntza ez dakiten norbanakoek ikasi egin behar dute (belaunaldi berriek zein zaharrek), baina horrekin batera, herritarrei hizkuntza hori erabili ahal izateko aukerak, espazioak bermatu behar zaizkie.

Bestalde, bi helburu nagusi horiek lortzeko hiru bitarteko nagusi erabili ohi dira: arauak, normalizazio-plangintzak eta baliabideak. Arauak oinarritzekoak dira herritarrei dagozkien eskubideak aitortu eta urraketan aurrean babes legala bermatzeko, hala nola, atzerapausoak edota unean uneko aldaketak zailtzeko. Era berean, plangintzak ere garrantzitsuak dira. Arauetan jasotakoa errealitate bilakatzeko eta horretarako helburu zein epe zehatzak dituzten plangintzak behar dira. Azkenik, hori guztia garatzeko ezinbestekoak dira mota guztietako baliabideak, zehaztutako helburuak lortzeko nahikoak eta behar bezala kudeatuak.

Baina hori ez da guztia, lan konplexu bezain zirrargarri hau arrakastaz, eraginkortasunez garatzeko ezinbestekoa izaten da norbanakoen, Administrazio publikoaren eta eragile pribatuen inplikazioa zein elkarlana.

2.1. Corpus juridikoa

Hizkuntza bat normalizatzeko prozesuan oso garrantzitsuak dira indarrean jartzen diren arauak, urteekin osatzen den corpus juridikoa. Garrantzitsuak dira hizkuntzaren estatusa definitzeko zein normalizazio prozesua garatzeko, baina batez ere garrantzitsuak dira hiztun komunitateari dagozkion hizkuntza-eskubideak aitortzeko. Azken finean, urraketan aurrean hiztunek euren eskubideak aldarrikatzeko helduleku juridikoa izan dezaten.

Euskal Herria banatzen duten hiru Administrazio nagusiek bakoitzak bere corpus juridiko propioa garatu du, hori bai bakoitzak dagokion Estatuak ezarritako muga barruan, baina kasurik onenean ere euskararen normalizazioak behar dituenetik urrun.

2.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Espainiako Konstituzioak ezagutu beharreko hizkuntza bakarra gaztelania zela ezartzean, euskara juridikoki bigarren mailako hizkuntza bezala definitu zuen eta ideia horrek gainerako corpus juridiko osoa baldintzatu du, Gernikako Estatututik euskararen normalizaziorako dekretuetaraino.

Honela, 1982ko Euskararen Legeak ez zuen euskara ezagutu beharreko hizkuntza bezala definitu.

Artean, Galegoaren Normalizaziorako 1983ko Legeak galegoa ezagutu beharreko izendatu zuen, nahiz eta Konstituzio-auzitegiak atzera bota aipatu betebeharra. Halaber, Kataluniak 2006 urtean onartutako Estatutuaren 6. artikuluan katalana ezagutzeko derrigortasuna jaso zen.

Estatuaren helegiteen eta Administrazio Autonomikoaren borondate politiko eskasaren ondorioz, Legearen garapena oso motela izan da. Garatutako arauak orain gutxi arte Administrazio publikora mugatu dira. Normalizazioarekin zerikusia zuten lehen arauak euskarazko hezkuntzan zegoen eskari handiari erantzuteko onartu ziren.

Hainbat urte beranduago Administrazio Orokorreko dekretu bat onartu zen, besteak beste, Administrazioan lan egiteko euskara jakin beharra jasotzen zuena (1986/250 Dekretua).

Hala ere, berehala Funtzio Publikoaren Legea onartu zen, lehen arau hori indargabetuz eta beste Dekretu malguago bati ateak irekiz. Ondoren onartu diren dekretuek bigarrenaren bide beretik jarraitu dute eta, ondorioz, Administrazio Publikoko normalizazio-plangintzetan hutsune eta gabezia larriak errepikatu dira Administrazio Orokorrean, Ertzaintzan, Justizia Administrazioan zein Osakidetzan:

- Euskara-gaitasun jakin bat egiaztatu beharra oso lanpostu gutxiri ezarri zaie, eta ondorioz, langile berri gehienei euskara meritua gisa baino ez zaie balioztatu. Gainera, puntu gutxi esleitzen zaizkio euskararen ezagutzari.
- Langile berri gehienei hizkuntza-gaitasuna lanpostua eskuratu ondoren egiaztatze aukera eskaini zaie. Hortaz, eskatutako eskakizuna sekula ez egiaztatze aukera zabaldu zaie, behin lanpostua hartuta, ia ezinezkoa baita funtzionarioak lanpostutik kentzea. Ondorioz, epea bukatutakoan dagokien maila egiaztatu ez dutenek lanpostuan jarraitu ahal izan dute, nahiz eta zerbitzua euskaraz eskaintze ko gaitasunik ez izan.
- Era berean, 45 urtetik gorako langileei betetzen ari diren lanpostuari dagokion euskara-maila egiaztatu beharrik ez izateko aukera eskaini izan zaie. Administrazio publikoko hiru langileetatik bik (%67) 45 urte baino gehiago dituztela kontuan hartuz, askok ez dute inoiz lanpostuari dagokion euskararen gaitasun-maila egiaztatu beharrik izan edo izango.


Euskara-gaitasun jakin bat egiaztatu beharra oso lanpostu gutxiri ezarri zaie, eta ondorioz, langile berri gehienei euskara meritua gisa baino ez zaie balioztatu.

Ondorioz, epea bukatutakoan dagokien maila egiaztatu ez dutenek lanpostuan jarraitu ahal izan dute, nahiz eta zerbitzua euskaraz eskaintze ko gaitasunik ez izan.

Era berean, 45 urtetik gorako langileei betetzen ari diren lanpostuari dagokion euskara-maila egiaztatu beharrik ez izateko aukera eskaini izan zaie.

*Are okerrago,
Konstituzioak berak
ezarritako mugetatik oso
urrun, euskararen
ofizialtasuna Foru
Komunitateko iparraldera
mugatu zuen.*

*Askok kontrakoa uste
duten arren, eremu mistoa
delakoan euskara ez da
ofiziala eta, noski, eremu
ez-euskalduna delakoan
ere ez.*



Hiru neurri horiek Administrazio Orokorrean zein gainerako alor publikoetan abian jarri diren normalizazio-plangintza guztien oinarria izan dira eta, ondorioz, goitik behera baldintzatu dituzte abian jarritako plangintza horiek guztiak. Neurri horien ondorioz, normalizazio-plangintzen eragina langile gutxi batzuetara mugatu da, plangintzen beraien eraginkortasuna ezerezean utziz.

Hau guztia Administrazioari dagokionez, baina sektore pribatuan egoera are tamalgarriagoa izan da. Izan ere, euskararen erabilera sustatzeko eta hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko lehen araua 2003 urtean onartu zen eta haren garapen praktikoa are beranduago, 2008 urtean. Dударik gabe, arau horiek aurrerapausoa izan dira aurrez ezer gutxi zegoelako, baina oraindik ere oso mugatuak dira, besteak beste, euskaldunon hizkuntza-eskubideak tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera aitortzen dituztelako.

2.1.2. Nafarroako Foru Komunitatea

Nafarroako Foru Komunitatean, Espainiako Konstituzioak euskara juri-dikoki bigarren mailako hizkuntza bezala definitu zuen ezagutu beharreko hizkuntza bakarra gaztelania zela ezartzean. Ideia horrek gainerako corpus juridiko osoa baldintzatu du, Foru Hobekuntzatik hasi eta euskararen inguruko gainerako arauetaraino.


Foru Hobekuntzak euskarari aitortzen zion ofizialtasuna garatu asmoz 1986 urtean onartutako Vasconcearen Legeak ere ez zuen euskara ezagutu beharreko hizkuntza bezala definitu. Are okerrago, Konstitu-

zioak berak ezarritako mugetatik oso urrun, euskararen ofizialtasuna Foru Komunitateko iparraldera mugatu zuen.

Ustezko datu soziolinguistikoetan oinarrituz, Nafarroa hiru eremutan banatu zuen eta nafarren gehiengo zabalaren hizkuntza-eskubideak babes juridikorik gabe utzi zituen. Askok kontrakoa uste duten arren, eremu mistoa delakoan euskara ez da ofiziala eta, noski, eremu ez-euskalduna delakoan ere ez.

Egia da eremu mistoko herritarrei zenbait eskubide aitortzen zaizkiela, baina eskubide horiek ez dute ofizialtasunaren babesik. Hortaz, ofizialtasunaren ondorio juridikoak ez dira legez aplikatzen.

Eremu ez-euskaldunean euskararen ofizialtasun ezak, besteak beste, hezkuntza publikoan D ereduan ikasi ahal izatea galarazten du.



Hortaz, hasiera-hasieratik euskararen normalizaziorako bitarteko nagusienetako bat izan behar zuen Vascuencearen Legea prozesu hori oztopatzeko tresna bilakatu da.

Hala ere, Nafarroako agintari politikoei euskararen aurka garatutako dinamika juridikoak urrats gehiago eman izan ditu.

Administrazioan euskararen erabilera arautzeko 1994 urtean onartu zen lehen Dekretuan ideia interesgarriak jaso ziren arren, urte bateko epean Administrazioan euskara normalizatzeko plangintza abian jarri

Bestalde, Nafarroan euskararen inguruan garatutako arauak Administrazio Publikora mugatu dira eta ondorioz, sektore sozioekonomiko edo pribatuan ez da euskara sustatzeko inolako araudirik abian jarri.

Beraz, Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala. Frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra eta ia eremu guztietan derrigor erabili beharrekoa

*Hartara, frantsesak
besterik ez du balio
juridikoa, gainerako
hizkuntzak frantsesarekin
batera erabil daitezkeen
arren.*

*Araudiaren ikuspegitik,
aurrerapauso
garrantzitsuenak
unibertsitate aurreko
hezkuntzan eman dira.*

*Euskarazko
irakaskuntzaren alde
herritarrek eta
Euskalgintzak egindako
lanari erantzun behar
izan dio Administrazioak.*

beharra, herritarrei euskarazko harrera bermatzeko zirkuitu euskaldunen garapena, esate baterako, ez ziren inoiz praktikara eraman.

Ondoren, 2000 urtetik aurrera, hainbat dekretu berri onartu ziren herritarrei aitortutako eskubide apurrak are gehiago murriztu asmoz.

Azken urteotan Auzitegiek atzerapauso horietako asko bertan behe-ra utzi dituzten arren, indarrean egon diren bitartean ondorio latzak eragin dituzte lan-deialdietan, hizkuntza-paisaian eta abarretan.

Horrela, Nafarroan euskararen inguruan garatutako corpus juridikoak euskararen normalizazioa bultzatzen baino oztopatzen jarraitzen du.

Bestalde, Nafarroan euskararen inguruan garatutako arauak Administrazio Publikora mugatu dira eta ondorioz, sektore sozioekonomiko edo pribatuan ez da euskara sustatzeko inolako araudirik abian jarri.

Gainerakoan, ondoren ikusiko dugun bezala, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politika euskara sustatzeko zenbait diru-laguntza banatzera mugatu dela esan daiteke.

2.1.3. Ipar Euskal Herria

Frantziako Estatuak ez du euskara normalizatzeko corpus juridiko orokorrik garatu, aitzitik, mendeetan zehar euskara gutxietsi egin da. Ez zaio dagokion estatusik aitortu, ez ofizialtasunik, ez hizkuntza-eskubiderik. Hainbat urtetan hezkuntza sistematik, herri-administrazioaren maila guztietatik, lan-mundutik edo hedabideetatik kanpo utzi da.

Are gehiago, orain gutxi arte Frantziako Estatuko lege garrantzitsuek ez dute hizkuntzari buruzko inolako aipamenik egin eta egiten hasi direnean frantsesa babesteko izan da.

Honela, egun indarrean den 1958ko Konstituzioan ez zen hizkuntzari buruzko aipamenik jasotzen, 1992 urtean, 2. artikuluari “Errepublikaren hizkuntza frantsesa da” gehitu zioten arte. Ildo beretik, hau da, frantsesaren nagusitasun juridikoa azpimarratzeko helburuz, frantsesaren erabilera arautzen zuen 1975 urteko legea aldatu zuten 1994 urteko Toubon Legearen bidez.

Beraz, Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala. Frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra eta ia eremu guztietan derrigor erabili beharrekoa (irakaskuntzan, zerbitzu publikoetan, salerosketetan, publizitatean, hedabideetan...).

Hartara, frantsesak besterik ez du balio juridikoa, gainerako hizkuntzak frantsesarekin batera erabil daitezkeen arren.



Bestalde, 2008ko uztaillean, Frantziako Konstituzioaren 75-1 artikulua eranstea onartu zen, eta horren ondorioz, eskualdeko hizkuntzak Frantziako ondare direla jasotzen da. Hala ere, ez da aitortzen horren ondorio juridikorik zehaztu.

Araudiaren ikuspegitik, aurrerapauso garrantzitsuenak unibertsitate aurreko hezkuntzan eman dira. Euskarazko irakaskuntzaren alde herritarrek eta Euskalgintzak egindako lanari erantzun behar izan dio Administrazioak.

Gainerako alorretan euskararen normalizazioaren ikuspegitik garrantutako araudia ia hutsala izan da. Administrazio Publikoan zein sektore pribatuan frantsesaren nagusitasun juridikoa azpimarratzen duten lege eta arauak garatu dira soilik.

2.2. Normalizazio-plangintzak

Arauak ezinbestekoak dira gutxitutako hizkuntza bat normalizatzeko, baina arauekin soilik ezinezkoa da hizkuntza bat berreskuratzea, plan-gintzak ere behar dira. Plangintzak behar dira bizitzaren alor guztietan eta horiek, era berean, plangintza orokor eta nagusi baten baitan garatu behar dira, koordinazio handiz, ikuspegi holistiko batetik. Plangintza orokor horrek euskararen normalizazio erabatekoa izan behar du helburu eta helburu horri azken data bat eta tarteko epeak ezarri behar zaizkio eta ondoren tarteko helburuak zehaztu, plangintza sektorial bakoitzean.

Plangintzak epe eta helburu zehatzik gabe garatzeak ez du inolako zentzurik eta arrakastaren bermea baino porroterako bidea erakusten dute.

Sektore pribatuari dagokionez, 2003an Legea eta 2008an Dekretua onartu arren, oraindik ez dago euskara normalizatzeko plangintzarik.

Nafarroako Administrazio publikoan 20.000 langile baino gehiago ari dira eta urtero euskara ikastaroetan mila langile baino gutxiagok parte har dezake.

*Osasunbidean,
Administrazio
Orokorrean,
Foruzaingoan, Justizian...
158 lanpostutan soilik
eskatzen dela euskaraz
jakitea. Halaber,
Nafarroan diharduten
epaile, fiskal zein
idazkari judizialetatik,
bati ere ez zaio
euskararen derrigorrezko
ezagutza eskatu.*

Plangintzak epe eta helburu zehatzik gabe garatzeak ez du inolako zentzurik eta arrakastaren bermea baino porroterako bidea erakusten dute.

Zoritzarrez, Euskal Herria banatzen duten hiru Administrazio nagusiek beren plangintzak garatu dituztenean helburu eta epe zehatzik gabe garatu dituzte. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ohikoena, plangintzarik ez garatzea izan da.

2.2.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Araudiarekin gertatu bezala, eremu honetan abian jarritako ekimen gehienak Administrazioa mugatu dira. Dena dela, hasieratik, sektore publiko osorako plangintza bakarra garatzeari uko egin zitzaion.

Lehen pausoak unibertsitate aurreko hezkuntzako irakasleak euskalduntzen eman ziren, baina gainerako alorretan lehen plangintzak Euskararen Legea onartu eta urteetara jarri ziren abian: Administrazio Orokorrean 1989 urtean, Ertzaintzan 1998 urtean, Justizia Administrazioan 2001 urtean eta Osakidetzan 2005 urtean.

Ondorioz, plangintzen berezko gabeziei urteetako atzerapenaren ondorioak gehitu zaizkie, euskararen normalizaziorako urrezko urteak galduz.

Unibertsitate aurreko hezkuntzan eman dira aurrerapauso nagusiak, baina hori, hein handi batean, herritarren eta Euskalgintzaren eskari eta lanari esker izan da. Dena dela, oraindik 8.400 irakaslek, %26k ez dute euskaraz irakasteko gaitasunik, Lanbide Heziketan, irakasleen %52koa da kopurua.

Gainerako alorretan ere herritarren eskaria areagotuz joan da, baina Administrazioaren erantzuna ez da parekoa izan: herritarren eskubideen aurretik sektore publikoko zenbait langile edota sindikaturen interesak jarri izan ditu Administrazioak.


Administrazio Orokorrean 20 urtez hiru plangintzaldi garatu ondoren, emaitzak oso mugatuak izan dira: 6.500 lanpostu inguru izanik, euskara jakin beharra lanpostuen %40ri soilik ezarri zaio eta azkenean eskatutako maila egiaztatu dutenak %19 besterik ez dira izan.

Ertzaintzan oso lanpostu gutxiri ezarri zaie euskara jakin beharra eta gainera oso oinarritzko maila batean. 12 urte ondoren oraindik ez da 2. hizkuntza-eskakizuna abian jarri. 8.000 lanpostu izanik, euskara egiaztatu beharra %29ri soilik ezarri zitzaion eta azkenean %22k soilik egiaztatu du.

Justizia Administrazioan lehen plangintza euskara ikastaroak eskaintzera mugatu dela esan daiteke, izan ere, auzitegiek euskara egiaztatu beharra bezalako funtsezko neurriak balio gabe utzi dituzte. Halaber, EAEn diharduten epaile, fiskal zein idazkari judizialetatik, bati ere ez zaio euskararen derrigorrezko ezagutza eskatu.

Osakidetzan, 23.800 lanpostu baino gehiago dituen zerbitzuan, lanpostuen %16ri soilik ezarri zaio euskara jakin beharra. Plangintza hain berandu abiatzearen ondorioz, besteak beste, langileen ia bi herenek,

%63k, 45 urte baino gehiago dute eta, ondorioz, ez dute euskara-gaitasuna egiaztatu beharrik.



Izan ere, hamarkadetan zehar Frantziako Estatuak ez du Administrazio Publikoan euskararen normalizazioa sustatzeko inolako plangintzarik abian jarri eta egin duen bakarra Euskalgintzaren edota udalerrien ekimenak oztopatzea izan da.

sektore sozioekonomiko edo pribatuan euskararen erabilera sustatzeko ekimen publikoak oso urriak izan dira eta kasu guztietan Herriko Etxeen eskutik garatutakoak.

Ikus daitekeenez, araudian jasotako gabezia eta hutsuneek abian jarritako plangintza guztiak goitik behera baldintzatu dituzte. Laburbilduz, unibertsitate aurreko hezkuntza alde batera utziz, 40.223 lanpostutatik, 9.582ri soilik ezarri zaie euskara jakin beharra (%23,8). Horietatik 4.823 langilek soilik egiaztatu dute eskatutako maila, %12k besterik ez.

Sektore pribatuari dagokionez, 2003an Legea eta 2008an Dekretua onartu arren, oraindik ez dago euskara normalizatzeko plangintzarik, eta abian jarri diren neurri bakarrek euskara sustatzen duten enpresei dirulaguntzak eskaintzera mugatu dira

2.2.2. Nafarroako Foru Komunitatea

Nafarroan euskararen normalizaziorako ekimenak nagusiki unibertsitate aurreko hezkuntzara eta, beste neurri batean, Administrazioa mugatu dira. Ez da egon sektore sozioekonomiko edo pribatuan euskara sustatzeko inolako plangintza edota ekimenik.

*euskararen
normalizazioari
dagokionez, EAEko
Administrazioak esleitu
dituen baliabide gehienak
bi eremutara bideratu
dira. Batetik, langileei
euskara ikastaroak
eskaintzera eta, bestetik,
euskara ikasten ari ziren
langile horien ordezkioak
kontratatzera.*

Hezkuntzan, herritarren eskari eta aldarrikapenek eragin dituzte Administrazioaren pauso mugatuak, Vascuencearen Legeak ezarritako eremuen arabera beti ere.

Administrazioan, esan bezala, euskararen erabilera arautzeko 1994 urteko Dekretuan jasotakoa urratuz, ez zen inoiz Administrazioan euskara sustatzeko plangintzarik abian jarri. Lehen Dekretu hori aldatu eta murrizten zuten arau berriak bai onartu ziren, baina normalizazio-plangintzarik ez.

Urte hauetan guztietan, Administrazioan euskararekin lotuta garatu diren egitasmo iraunkor bakarrak bertako langileak euskalduntzeko zerbitzuak izan dira; bata unibertsitate aurreko hezkuntzako irakasleen euskalduntzera bideratua, eta bestea, gainerako langile publikoen euskalduntzeaz arduratua.

Azken zerbitzu hori Administrazioako langileei euskara-ikastaroak eskaintzeaz arduratu da eta, orokorrean, Administrazioa ikastorduen erdia bere gain hartzera mugatu da.


Urtero aurrekontuaren araberrako ikastaro-kopuru jakin bat eskaini da. Halaber, urtero plaza mugatu horiek eskuratu nahi zituzten langileek beren zerbitzuburu edo nagusien oztopoak gaintitu behar izan dituzte, horien baimena ezinbestekoa baita ikastaroetan parte hartu ahal izateko.

Dena dela, ikastaro eskaintza hori urtetik urtera murriztuz joan da, eta urte hauetan guztietan euskaldundu dituzten langileen kopurua oso urria izan da. Izan ere, Nafarroako Administrazio publikoan 20.000 langile baino gehiago ari dira eta urtero euskara ikastaroetan mila langile baino gutxiagok parte har dezake.

Argi dago, beraz, eskaintza horren helburua Administrazioa euskalduntzea baino, langileen eskariari erantzutea dela.

Gaur egun, Nafarroako Administrazioan 20.632 lanpostu daude, baina euskara jakitea ezinbestekoa duten lanpostuak 1.486 besterik ez dira, hau da, %7,2 baino ez.

Are okerrago, unibertsitate aurreko hezkuntza alde batera uzten badugu, ehuneko murrizt hori ia ezerezean gelditzen da, %1,2. Horrek zera esan nahi du, Osasunbidean, Administrazio Orokorrean, Foruzaingoan, Justizian... 158 lanpostutan soilik eskatzen dela euskaraz jakitea. Halaber, Nafarroan diharduten epaile, fiskal zein idazkari judizialetatik, bati ere ez zaio euskararen derrigorrezko ezagutza eskatu.



Itzulpen-zerbitzuetan gero eta diru gehiago xahutzen da, bere garaian langile elebidunak hartu ez zirelako eta elebidunak ez diren langileek euskaraz egiteko gaitasunik ez dutelako.

Aurrekontu publikoaren %1,2 eta BPGaren %0,19 besterik ez da bideratzen euskararen sustapenera.

Gobernuak, 2007 urtean, euskararekin zerikusia zuen guztiaz arduratzeko Euskarabidea Institutua jarri zuen abian, baina funtsean egiturazkoa den egoera larri hau kudeatzera mugatu da. Azken urteotan gainera, funtzio eta baliabideak murrizteari ekin dio.

2.2.3. Ipar Euskal Herria

Hainbat urtetan normalizazio-plangintzen eremuan ez da inolako ekimenik abian jarri. Ikastolekin izenpetutako hitzarmenak edota eskola publikoetan zenbait ordu euskaraz emateko aukera izan dira Estatuak hartutako neurri garrantzitsuenak.

Berriki, Administrazio ezberdinen artean Euskararen Erakunde Publikoa jarri dute abian. Zenbait alorretan helburu interesgarriak proposatu dituen arren (hezkuntza, helduen euskalduntzea, hedabideak...), beste zenbait alor estrategikotan ez da inolako neurririk zehaztu (Administrazioa, sektore pribatua...).

Dena dela, oraingoz erakunde honen ekinbide nagusia euskararen alorrean lanean ari diren eragileei diru-laguntzak banatzea izan da.

Eman izan diren pauso apurrak herritarrek eta Euskalgintzak egin dako eskari eta lanaren ondorioz izan dira. Dena dela, azpimarragarria da zenbait zerbitzu publikotan Euskalgintzak garatutako dinamikei Estatuak emandako erantzun eskasa, esaterako tren-zerbitzuan edota posta-zerbitzuan.

Ido beretik azpimarragarriak izan dira Prefeturak edota Suprefekturak euskararen garapenari jarri izan dizkion oztupoak. Izan ere, hamarkadetan zehar Frantziako Estatuak ez du Administrazio Publikoan euskararen normalizazioa sustatzeko inolako plangintzarik abian jarri eta egin duen bakarra Euskalgintzaren edota udalerrien ekimenak oztopatzea izan da.

*Azken urte hauetan
Nafarroako Gobernuak
euskararen alorrean
esleitu dituen baliabide
nagusiak, unibertsitate
aurreko hezkuntzako
irakasleak eta gainerako
langile publikoak
euskalduntzeko
zerbitzuak izan dira.*

Azken urteotan Euskararen Erakunde Publikoa zenbait alorretan pausoak ematen ari da, baina esan bezala, euskaraz bizi ahal izateko estrategikoak diren zerbitzu publikoetan oraindik ez da inolako ekimenik abian jarri.

Ez da Administrazio Orokorra, osasun-zerbitzua, polizia edota justizia euskalduntzeko inolako ekimenik garatu. Era berean, sektore sozioekonomiko edo pribatuan euskararen erabilera sustatzeko ekimen publikoak oso urriak izan dira eta kasu guztietan Herriko Etxeen eskutik garatutakoak.

2.3. Baliabideak

Arauek eta plangintzak ezinbestekoak direla esan dugu, baina ezinbestekoak dira ere zehaztutako politikak garatu ahal izateko oinarritzko baliabideak, giza baliabideak, baliabide ekonomikoak zein azpiegitura mailakoak. Politika publikoek zehaztutako plangintzetan helburu eta epe zehatzekin batera, horietako bakoitza garatzeko erabili beharreko baliabideak esleitzen ditu. Eta politika publiko horien ebaluazioa egiterakoan zehaztutako helburu eta epeak zein neurritan bete diren eta horretarako zein baliabide erabili diren neurtzen da.

Gurean bada, ez da horrelakorik gertatzen. Zehazten diren plangintzetan ez da esleitutako diru kopurua zehazten. Urtero partida jakin batzuetara diru kopuru bat esleitzen da eta esleitutako kopuru horrek agintzen du jarduna zenbaterainokoa izango den, ez alderantziz.

2.3.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Corpus juridikoan edota normalizazio-plangintzetan gertatu diren hutsune eta gabeziak baliabideen atalean ere errepikatu dira. Euskararen normalizazioak behar dituen baliabideetatik urrun ibili da Administrazioa.


Izan ere, euskararen normalizazioari dagokionez, EAEko Administrazioak esleitu dituen baliabide gehienak bi eremutara bideratu dira. Batetik, langileei euskara ikastaroak eskaintzera eta, bestetik, euskara ikasten ari ziren langile horien ordezkioak kontratatuz.

Gastu nagusi horiei diru-laguntzen bidez garatutakoak gehitu behar zaizkie, baina edozein kasutan, gastu garrantzitsuenak bi atal horietan kokatu dira, eta batez ere ordezkapenen atalean.


Horrek zera esan nahi du, lanpostu publikoak betetzerakoan euskara jakin beharra ezarri ez izanak ondorengo urteetan izugarritzko gastua eragin diola Administrazioari eta, ondorioz, hizkuntza-politikari berari.

Besteak beste, itzulpen-zerbitzuetan gero eta diru gehiago xahutzen da, bere garaian langile elebidunak hartu ez zirelako eta elebidunak ez diren langileek euskaraz egiteko gaitasunik ez dutelako.

Azken urte hauetan euskararen sustapena delakoan egindako gastu orokorraren benetako neurria ulertzeko aurrekontu publikoen edota Barne Produktu Gordinaren bilakaerarekin alderatzea besterik ez dago.



Nafarroako Gobernuak ez du euskararen normalizazioak behar dituen baliabideak esleitzeko inolako borondaterik izan, eta azken urteotako murrizketek aurreko urteetako politikaren areagotzea besterik ez dute erakusten.



Aurrekontu publikoaren %1,2 eta BPGaren %0,19 besterik ez da bideratzen euskararen sustapenera. Komunitate baten garapen eta elkarbizitzarako gakoa den hizkuntzaren berreskurapenaz ari garela kontuan hartuz, proportzio desegokiak, zalantzarik gabe.

2.3.2. Nafarroako Foru Komunitatea

Azken urte hauetan Nafarroako Gobernuak euskararen alorrean esleitu dituen baliabide nagusiak, unibertsitate aurreko hezkuntzako irakasleak eta gainerako langile publikoak euskalduntzeko zerbitzuak izan dira.

***Ipar Euskal Herriak
aitorpen instituzionalik
ez duen heinean, ez dago
urteko aurrekontuak
erabaki eta kudeatzen
dituen Administrazio
Nagusirik.***

***Euskararen Erakunde
Publikoko teknikarien
soldatak alde batera
utiziz, erakunde honen
lana beste eragileek
euskararen eremuan
garatzen dituzten
ekimenak diruz
laguntzera mugatzen dela
esan daiteke.***

Horiei itzultzaile-zerbitzua ere gehitu behar zaie, bai eta Euskarabi-dea Institutuan ari diren beste zenbait teknikari ere.

Dena den, funtsean, Nafarroako Gobernuak euskara sustatzera bideratutako baliabideak beste eragile edo norbanakoei bideratutako diru-laguntzen bidez garatu dira.

Esan bezala, euskara-ikastaroetara bideratutako baliabideak urtero aurrekontuetan jasotako partida mugatu baten arabera izan dira, inoiz ez helburu edo plangintza jakin bat garatzeko helburuz esleitutakoak.

Partida mugatu horiei Osasunbidean euskara ikasten ari diren langileen ordezkapenak ordaintzeko partida batzuk gehitu behar zaizkie. Hala ere, kasu honetan ere ez da egon helburu eta epe zehatzak dituen inolako plangintzarik eta kopuruak oso urriak izan dira.

Gainerako ekimenak eragile edo norbanakoei diru-laguntzak eskaintzera mugatu direla esan daiteke. Azken urte hauetan, aurrez murriztak ziren laguntza horiek are gehiago murriztu dituzte, eta gorabehera handiak izan dituzte.




Edozein kasutan, urte hauetan guztietan Nafarroako Gobernuak ez du euskararen normalizazioak behar dituen baliabideak esleitzeko inolako borondaterik izan, eta azken urteotako murrizketek aurreko urteetako politikaren areagotzea besterik ez dute erakusten.

2.3.3. Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herriak aitorpen instituzionalik ez duen heinean, ez dago urteko aurrekontuak erabaki eta kudeatzen dituen Administrazio Nagusiak. Dena dela, Euskararen Erakunde Publikoak hainbat urtetarako aurrekontu jakin bat kudeatzen du euskararen sustapenerako, Hitzarmen Bereziko Lurralde Kontratuaren baitan.

Bada, Lurralde Kontratu horretan hizkuntza-politikara bideratzen den aurrekontua azken urte hauetan apur bat hazi den arren, oraindik ere ez dira euskararen normalizazioak behar dituen baliabideak esleitzen.

Azken Lurralde Kontratuaren baitan (2007-2013) esaterako, Hizkuntza Politika atalera bideratzen den kopurua ez da aurrekontu osoaren %3ra ere iristen. Azpiegituran eta hirigintzan hizkuntza-politikan baino 13 aldiz gehiago gastatzea aurreikusten da, eta ingurumenean 6 aldiz gehiago.



Bost urterako aurrekontua dela kontuan hartzen badugu, urtero hizkuntza-politikara milioi bat euro inguru bideratuko dela aurreikus daiteke. Diru kopuru mugatua oraindik ere.

Izan ere, azpiegituran eta hirigintzan edota ingurumenean Estatuak bestelako gastu eta inbertsioak egiten dituen bitartean, euskararen sustapenerako egiten den gastu ia guztia aurrekontu horien baitan kokatzen da. Gainera, lehen Lurralde Kontratuaren baitan (2001-2006) hizkuntza-politikarako aurreikusitako hainbat partida azkenean ez ziren gauzatu eta indarrean den bigarren honetan ere antzeko zerbait gertatzen ari da.

Administrazioek emandako pausoak oso mugatuak izan dira eta ez dute euskararen normalizazioa bermatzen. Salbuespenak salbuespen, kasu gehienetan euskara sustatzeko zerbait egiten ari direla erakustera mugatu dira.

Euskararen normalizazioa aukerek bizirik iraun badute, hori herritarren lan eta hantuari esker izan da.

*Administrazio bakoitzak
kudeatzen duen
eskuduntza bakoitza
euskararen normalizazio-
prozesuaren zerbitzuan
jarri behar du.*

*Helburu eta epe zehatzak
dituena da hizkuntza-
politika egokia.*

Euskararen Erakunde Publikoko teknikarien soldatak alde batera utziz, erakunde honen lana beste eragileek euskararen eremuan garatzen dituzten ekimenak diruz laguntzera mugatzen dela esan daiteke.

3. EGIA DESEROSOA

Hiru hamarkada ondoren, euskarak ezagutu dituen aurrerapauso eskasak Administrazioei esker baino herritarren lan eta hautuari esker izan dira. Hori argi dago. Administrazioek emandako pausoak oso mugatuak izan dira eta ez dute euskararen normalizazioa bermatzen. Salbuespenak salbuespen, kasu gehienetan euskara sustatzeko zerbait egiten ari direla erakustera mugatu dira. Administrazioen beraien hainbat txosten eta datu aztertu ditugu, batzuk publikoak baina beste asko sekula plazaratu gabeak, eta ondorioak benetan argigarriak dira: Euskal Herriko herritar guztiontzat beren eguneroko eta mota guztietako jardunean ohiko eta lehen-tasuneko hizkuntza euskara izateko helburua ez da lortuko hizkuntza-politika horiekin, hau da, euskara ez da normalizatuko politika horiekin.

Hori da Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Administrazio Nagusien hizkuntza-politika orokorrak sakon aztertu ondoren atera duen ondorio nagusia: hizkuntza-politika hauekin ez da euskara normalizatuko. Hori da euskararen egia deserosoa. Euskal herritar orok ulertu behar duen errealitatea.

Administrazioek beraiek erabiltzen dituzten datuak aztertuz, errealitatearen argazki argigarria osatu dugu eta zuei guztioi jakinarazi behar dizuegu. Ezinbestekoa da ahalik eta herritar gehien errealitate horretaz jabetzea. Euskararen normalizazio-aukerek bizirik iraun badute, hori herritarren lan eta hautuari esker izan da. Ondorioz aldatu behar duguna ez da herritarren lana, eremu horretan ahaleginak biderkatu behar ditugu *Bai euskarari* jarreratik *Euskaraz bai* praktikara pasaz, baina era berean eta jarrera horren aldaketaren bidez, Administrazioak mugiarazi behar ditugu, behingoan euskararen normalizaziorako hizkuntza-politika eraginkorra abian jar dezaten.

4. HIZKUNTZA-POLITIKA EGOKI ETA ERAGINKORRA BEHAR DUGU

Euskara normalizatzeko beraz, hizkuntza-politika berria behar dugu, orain arteko hizkuntza-politikak gainditu eta neurri zehatz eta eraginkor-rrak abian jarriko dituen hizkuntza-politika. Euskararen Gizarte Erakunde-aren Kontseiluak hizkuntza-politika berri horrek izan beharko lituzkeen ezaugarri nagusiak zehaztu ditu jada eta ondorengoak lirarteke labur-labur bilduz daitezke:

Toki-Administrazioetik Administrazio Nagusirainokoa izango da hizkuntza-politika. Administrazio bakoitzak kudeatzen duen eskuduntza

bakoitza euskararen normalizazio-prozesuaren zerbitzuan jarri behar du. Guztiz funtsezkoa da era koordinatuan lan egitea.

Sektoreen eta Sailen artekoa izatea da hizkuntza-politika egokiaren beste ezaugarri bat. Euskararen normalizazioa zeharka landu beharrekoa da: ogasunean, osasunean, herrizaingoan, justizian, ekologian, merkataritzan, aisian, industrian, garraioan... Politika sektorial guztietatik egiten da hizkuntza-politika.

Helburu eta epe zehatzak dituen da hizkuntza-politika egokia. Hizkuntza-politika zerbait baldin bada, politika planifikatua da, ezin da bestela kudeatu, egite hutsak ez gaitu helburura gerturatzen. Helburu horretara iristeko eman beharreko pausoez, horiek eman ahal izateko epeak eta bitartekoak unitate zatiezina osatzen dute.

Baliabidez ongi hornitua eta egoki kudeatua izan behar du hizkuntza-politikak. Garrantzi handikoa da politika definitzen duten bi elementuen artean oreka bilatzea, hau da, arauaren eta laguntzaren artean.

Norbanakoak eta espazioak euskalduntzeari begirakoa da hizkuntza-politikarik egokiena. Ezagutza unibertsalizatzeko bidea jorratzen dugun neurri berean gizartearen espazioak irabazi behar dira erabilera eragotzeko.



Erabilera sozial normalizatua da kasu guztietan hizkuntza-politikaren helburua. Ezagutza unibertsalak berez eta bakarrik ez baitu erabilera soziala bermatzen.

Ikuspegi osoa duena da hizkuntza-politika egokia. Sektore batean edo alor batean hartzen den erabakiak eragina du beste sektore edo alor batean. Hartzen ez diren erabakiek ere eragina dutela esan behar dugu.

Euskal Herri osoan aplikatzeko moduko hizkuntza-politika behar dugu. Hizkuntza-komunitatea zatiturik ageri da une honetan, Administrazio desberdinek zatiturik eta hizkuntza-politika desberdinek zatiturik. Hor-taz, behar-beharrezkoa da komunitate osoari eragingo dion politika egitea.

*Erabilera sozial
normalizatua da kasu
guztietan hizkuntza-
politikaren helburua.*

*Normalizazio-prozesuak
dimentsio politikoa eta
soziala du, eta biak egoki
uztartzea ezinbestekoa da
helburura iristeko.*

Hizkuntza-politika burujabea behar du normalizazio-prozesuak, bertakoek bertan sortua, inolako kanpo esku-hartzerik gabea.

Hizkuntza-eskubideen bermea hizkuntza-politika eragingarriaren ardatza. Egoera gutxituan dagoen hizkuntzaren hiltunen hizkuntza-eskubideak etengabe urratzen dira egoeraren beraren ondorioz. Hizkuntza-politikak, beraz, eskubide horien bermatzea izan behar du helburu eta lehentasun, normalizaziora iritsi baino lehenagoko tarte-helburu gisa.

Instituzioekin eta gizarte-eragileekin egoki koordinatua behar da hizkuntza-politika. Konplizitatea da harremana hobekien definitzen duena. Normalizazio-prozesuak dimentsio politikoa eta soziala du, eta biak egoki uztartzea ezinbestekoa da helburura iristeko.■